



OROKIETA
OROKIETA

OROKIETA

Jose Oiz, Orokietako Etxeberrikoa

– Ni naiz Orokietako Etxeberriko, Etxeberrikoa, ta Jose Oiz, ta lauogei urte.

– Ola zaharra, izen hori ematen zaio ezta?, Orokietan bazen oraindik arrasto aztarnen bat edota gelditzen da, zer ote zen, edota noizko kontua izan ote daiteke ola hori?

– Hori, gue aitak eta esaten zutenes bukatu zen hori oain dela eun ta ogeien bat urte pasa, ta hor egiten zen burnia, ta burnia hori, egiten zen hor, hemen bere hontan bazen minerala, o materia prima, oaiñiken e ba dee erretoak edo arrastoak, ta gero hemen bere hontan itten zen ikatza, baizen, baizen, kantidadea, hori... matiela ikatza itteko, «o sea», eurra, ta eurrakin ikatza in, ta gero ikatz horrekin hemen hure, opatzen zen mineala, ta mineal hure urtzen zen edo, ta hortaako zen fabrika hori, burni hori, burnie hemen egiteko, aitzen duzu?

– Eta ze izan zen, fabrika handia, inportantzikoa?

– Bueno, inportantzikoa hua ere aitak eta esaten zutenes horko, zer dakit ba nik, hogeion bat lagun edo, hogeitamarren bat bittartio, ta gero bazuten hoiek been, oaiñikan e hor daude, bere itxiak, ta bazuten been elize, ta denak bazittuten, ta hor daude, itxe at oaiñikan izena duna «Olaetxea», ta bestea nausin etxea re bai, beste at hor dao, ta hori da, fabrika hori oaiñ, fabrika, uskaraz eztakit nola dun izena, «ola» izango du, eztala?, ta hor daude oaiñiken lenaoko erretoak, asko daude, oaiñ dena... nik e zautu ttut gauze franko, biño oaiñ baakizu, nik nola baittut lauogei urte, pues lauogei urte hauetan gauza asko desin dee, eztala?, desin dee edo eztaude hemen len asko lenao zauden gauzek, falta dee, ez al duzu kusi oaiñikan nola dauden zeak lenaoko muruak eta, nik zautu ttut hor e lenaoko, zea, ikatza, eurrekin ikatza in, ta in bear zuten almazenatu edo, zea gordetu, ta zautu ttut almazenak, been talletu azpikin, edo been idorrakin, ta talletu haiek eta denak oaiñ desin dee beño hor daude denak, arrastoak oaiñiken hor daude.

Ta presa, presa uran, uran presa re hor dao oaiñiken, ta lenao nola itten zittuten lanak, eta arrastoak denak hor daude oaiñiken, nahi ttunak ekusi edo,

hori zea pixkoatekin, denboa pixkoatekin, gauze franko oaiñiken hartu daizkie nola zeen gauza hoiek.

Nausik, nik uste lenaokoak erraten zutenes zeen, hori, herritako, herritako bezinoak, ta herritako bezinoak zeen mendi hoién jaun ta jabe, entenitze uzu?, ta nola baizeen ba herritako bezinoak basoan edo mendin jaun ta jabe, pues, hoiek fabrika hoiek, ola hoiek zeen egiñek, hori, baso horrek ez baizun ba ta horko zeak nola materia prima ikatza ta, eurre ta, denak ez baizuten ba zeaik, hori, salidaik edo, ez baizuten atraeraik, pues, hoiek herritako nagusik, beak, pues, itten zeen, hori, jokutzen zeen, edo dedikatzen zeen, hori, been gauzei balioa matea, ta modu hortas, fabrika horren medios, pues baso horrei denai maten zioten bee balioa ta bee salide, ta hortaako herriko nausik, herritako nausi zeen, mendin nausie, ta hoiek manejatzen zuten been herrie ta been basoa ta been abeastasunek.

– Herrietakoak esaten duzunean, Orokieta eta ingurukoak, edo zeintzuk?

– Orokietakoak, baktokak bee herria, ta hemengo herriak zeen Orokieta ta Erbiti ta, hori, barrioa, Ferreria, hiru dee, eta, herria bat da, baño dee hiru barrio.

– Eta langileak hemengoak izanen ziren.

– Nik uste bertako langileak, denetakoak izango zeen, eh?, denetakoak, baktokak, bueno gauzek, e fabriken, oain pasten dena, oain pasten dena enpresa atian, pues izango dee asko, hori, bere hontakoak, biño zeak, mane-jatzeko ta dirijenteak edo, zeak, gauzek in behar zittutenak eta beti bada, bihar da yendea prestatue, ta ordun e izango zen yendia prestatue. Nik zautu ttut holako yende prestatu betzuk hemen beste zenbait gauzetan, ta ordun e nik uste berdin pastuko zela.

– Egurra bazen, noski, eta basoak eta aprobetxatzen zituzten, baina mendiak soildu ere ez ote zituzten egin? Mendian horrenbeste egur kendu eta soildu?

– Askok bai, beño oaiñiken nik horko..., hogeitun bat urte nittun garaien oaiñiken herri honek baso asko zun, oaiñiken e badu bastante, eztala?, beño ordun denboa haietan zeen, pues, zeak selba atzuk, ta selbak biño, dena, dena zeen mendis jauntzik eztala?, ta mendis, ta arboles jauntzik, eta etzaukaten iñoa salidik, etzun balio, etzuten balio hoiek, eta hortaako in zittuten ola edo fabrika hoiek, zeak, hemengo basoai ta hemengo materia primai hure, zea mateko, bee bidia mateko edo bee salide mateko. Hortaako indako fabrikak zien hoiek, segun ta itxure re hala du, itxure re hala du.

– Eta dena pagoa?

– Bai, hemen jeneal gehiena pagoa, ba dee beste espezieak geo, hemen gaztaiñe re asko izandu da, ametza re bai, haritze re bai, erraten zaiona da roble, biño robleak badee, bi-hiru espezie badee, ta herri honek izandu ttu bi espezie, oaiñiken e badu dexente, oaiñiken e badu, bat, oaiñiken haritze ba du dexente, biño ametza ya oso gutxi.

– Eta zergatik itxi ote zen edota, horren notizirik?

– Hori beste gauze askon gise, eztala?, torri dee gero beste modu betzuk ittekoak, ta torri zeen gero beste modu betzuk, askos e adelantu haundiookoa-kin, eztala?, ta oain pasatzen dena, ez balin badee berritzen gauzek eta ez balin badee adelantuk paatzen zarrak geatzen dee atzea, ta berriok juten dee aurrea, ta hoietan e, nola ola atian ta nola bestian, denak, izandu da, hori, gauz hori, zengatik batzuk adelantuk tortziakin, pues, in diote hok hoiek konpetittu eo, ta ya, hok etzezaketan iraun hoiien kontra, zeatik hoiek hori itten tzuten aisego ta merkego, ta hok etzezaketan, hori, lanik in hoiien kontra, ta hortangatik, nik hure aittu izandu dut eta itxura haundie du gauzek, hure, leenagoko zarretatik aittutako kontuk.

– Orokietako labean baziren gehiago, izanen ziren noski, garai batean, ola gehiago, beste herrietan eta?

– Bai, bai, bazen Aizaotzen ola, ta bazen Donamarin ola, bazen Ezkurren ola, denak, herri bakotxak kasik, herri askok zittuten been olak edo been fabrikek entenitze duzu?, biño hoiek nik uste batzuk iraun zuten gehixago, beste atzuk iraun zuten gutxigo, biño gan zeen denak hola galdus ta geldittus eo geatus.

OROKIETA

Jose Oiz, Orokietako Etxeberrikoa

– Ni naiz Orokietako Etxeberriko, Etxeberrikoa, eta Jose Oiz, eta laurogei urte.

– Ola zaharra, izen hori ematen zaio ezta?, Orokietan bazen oraindik arrasto aztarnen bat, edota gelditzen da, zer ote zen, edota noizko kontua izan ote daiteke ola hori?

– Hori, gure aitak eta esaten zutenez bukatu zen hori orain dela ehun eta hogeiren bat urte pasa, eta hor egiten zen burdina, eta burdina hori, egiten zen hor, hemen bere honetan bazen minerala, edo materia prima, oraindik ere ba dira erretoak edo arrastoak, eta gero hemen bere honetan egiten zen ikatza, baitzen, baitzen kantidadea, hori... materiala ikatza egiteko, «o sea», egurra, eta egurrarekin ikatza egin, eta gero ikatz horrekin hemen, hura, opatzen ¹ zen minerala, eta mineral hura urtzen zen edo, eta horretarako zen fabrika hori, burdina hori, burdina hemen egiteko, aditzen duzu?

– Eta zer izan zen, fabrika handia, inportantziakoa?

– Bueno, inportantziakoa hura ere aitak eta esaten zutenez horko, zer dakit ba nik, hogeiren bat lagun edo, hogeitamarren bat bitarte, eta gero bazuten horiek beren, oraindik ere hor daude, beren etxeak, eta bazuten beren eliza, eta denak bazituzten, eta hor daude; etxe bat oraindik izena duena «Olaetxea», eta bestea nagusiaren etxea ere bai, beste bat hor dago, eta hori da, fabrika hori orain, fabrika, euskaraz ez dakit nola duen izena, «ola» izango du, ez da hala?, eta hor daude oraindik lehenagoko erretoak, asko daude, orain dena... nik ere ezagutu ditut gauza franko, baina orain badakizu, nik nola baititut laurogei urte, pues, laurogei urte hauetan gauza asko desegin dira, ez da hala?, desegin dira edo ez daude hemen, lehen, asko lehenago zeuden gauzak, falta dira, ez al duzu ikusi oraindik nola dauden zerak, lehenagoko muruak eta, nik ezagutu ditut hor ere lehenagoko, zera, ikatza, egurrekin ikatza egin, eta egin behar zuten almazenatu edo, zera, gordetu, eta ezagutu ditut almazenak, beren teilatu-azpiekin, edo beren idor-rarekin ², eta teilatu haiek eta denak orain desegin dira, baina hor daude denak, arrastoak oraindik hor daude.

Eta presa, uraren presa ere hor dago oraindik, eta lehenago nola egiten zituzten lanak, eta arrastoak denak hor daude oraindik, nahi dituenak ikusi

(1) Aurkitu.

(2) Idor: aterpe; lehorpe.

edo, hori, zera piska batekin, denbora piska batekin, gauza franko oraindik hartu daitezke nola ziren gauza horiek.

Nagusiak, nik uste lehenagokoek erraten zutenez ziren, hori ³, herrietako, herrietako bezinoak, eta herrietako bezinoak ziren mendi horien jaun eta jabe, entenditzen duzu?, eta nola baitziren ba herrietako bezinoak basoaren edo mendiaren jaun eta jabe, pues, horiek, fabrika horiek, ola horiek ziren eginak, hori, baso horrek ez baitzuen ba, eta, horko zerak, nola materia prima, ikatza eta, egurra eta, denak ez baitzuten ba zerarik, salidarik edo, ez baitzuten ateraerarik, pues, horiek herrietako nagusiak, berak, pues, egiten ziren, jokatzen ziren, edo dedikatzen ziren, beren gauzei balioa ematera, eta modu horretaz, fabrika horren medioz baso horiei denei ematen zieten bere balioa eta bere salida, eta horretarako herriko nagusiak, herrietako nagusiak ziren, mendien nagusi, eta horiek manejatzen zuten beren herria eta beren basoa eta beren aberastasunak.

– Herrietakoak esaten duzunean, Orokieta eta ingurukoak, edo zeintzuk?

– Orokietakoak, bakoitzak bere herria, eta hemengo herriak ziren Orokieta eta Erbiti eta barrioa, Ferreria, hiru dira, eta, herria bat da, baina dira hiru barrio.

– Eta langileak hemengoak izanen ziren.

– Nik uste bertako langileak, denetakoak izango ziren, eh?, denetakoak, bakoitza, bueno gauzak, fabrikan, orain pasatzen dena, orain pasatzen dena enpresa batean, pues izango dira asko bere honetakoak, baina zerak, manejatzeko eta dirijenteak edo, zerak, gauzak egin behar zituztenak, eta beti bada, behar da jende prestatua, eta orduan ere izango zen jende prestatua. Nik ezagutu ditut holako jende prestatu batzuk hemen beste zenbait gauzatan, eta orduan ere, nik uste, berdin pasatuko zela.

– Egurra bazen, noski, eta basoak eta probetxatzen zituzten, baina mendiak soildu ere ez ote zituzten egin? Mendian horrenbeste egur kendu eta soildu?

– Asko bai, baina oraindik nik horko... hogeitau urte nituen garaian, oraindik herri honek baso asko zuen, oraindik ere badu bastante, ez da hala?, baina orduan denbora haietan ziren, pues, zerak, selba batzuk, eta selbak, baina, dena, dena ziren mendiz jauntzirik ⁴, eta mendiz, eta arbolez jauntzirik, eta ez zeukaten inora salidarik, ez zuen balio, ez zuten balio horiek, eta horretarako egin zituzten ola edo fabrika horiek, zerak, hemengo basoei eta hemengo materia primari, zera emateko, bere bidea emateko edo bere salida emateko. Horretarako egindako fabrikak ziren horiek, segun eta itxura ere hala du, itxura ere hala du.

– Eta dena pagoa?

(3) Behin eta berriz errepikatzen duen 'hori' hau ez da erakuslea, halako 'lelo' pertsonal bat baizik, hain maiz erabiltzen den 'zera' ren parekoa. Irakurketa arintzearen horietako batzuk kendu egin ditugu euskara batuko bertsiotan.

(4) Jantzirik; beterik.

– Bai, hemen jeneralean gehiena pagoa, badira beste espezieak gero, hemen gaztaina ere asko izan da, ametza ere bai, haritza ere bai, erraten zaiona da roble, baina robleak badira, bi-hiru espezie badira, eta herri honek izan ditu bi espezie, oraindik ere badu dexente, oraindik ere badu, bat, oraindik haritza badu dexente, baina ametza jada oso gutxi.

– Eta zergatik itxi ote zen, edota, horren notizirik?

– Hori beste gauza askoren gisa, ez da hala?, etorri dira gero beste modu batzuk egitekoak, eta etorri ziren gero beste modu batzuk, askoz ere adelantu handiagoekin, ez da hala?, eta orain pasatzen dena, ez baldin badira berritzen gauzak, eta ez baldin badira adelantuak paratzen, zaharrak geratzen dira atzera, eta berriok joaten dira aurrera, eta horietan ere, nola ola batean eta nola bestean, denak, izan da gauza hori, zengatik batzuek adelantuak etortzearekin, pues, egin diote hauek, horiek konpetitu edo, eta jadanik, hauek ez zezaketen iraun horien kontra, zergatik horiek hori egiten zuten aiseago eta merkeago, eta hauek ez zezaketen lanik egin horien kontra, eta hortaz, nik hura aditu izan dut eta itxura handia du gauzak, hura, lehenagoko zaharretatik aditutako kontuak...

– Orokietako labeaz baziren gehiago, izanen ziren noski, garai batean, ola gehiago, beste herrietan eta?

– Bai, bai, bazen Aizarotzen ola, eta bazen Donamarian ola, bazen Ezkurran ola, denak, herri bakoitzak kasik, herri askok zituzten beren olak edo beren fabrikak, entenditzen duzu?, baina horiek nik uste, batzuek iraun zuten gehixeago, beste batzuek iraun zuten gutxiago, baina joan ziren denak, hola galduz eta geldituz edo geratuz.